

Aitor Biain

GASTEIZ—Adostu baino pixka bat beranduago heldu da Imanol Pradales (Santurtzi, Bizkaia, 1975) Sabin Etxera, BERRIArekin jarria zeukan hitzordura. Agenda betea baitauka EAJren lehendakari-gaiak, larunbat goiza izanagatik ere. Lasai antzean egin ditu kanpainako lehen egunak, baina koska bat estutu du azken egunetan, eta ohartarazi igandean «asko» dagoela jokoan.

Kementsu aritu zara kanpainan, hautesleak mobilizatu nahian. EAJk asko duelako jokoan?

Euskadik dauka asko jokoan. Euskal gizarteak erabaki beharko du zer gizarte eredu nahi duen.

Etengabe esan duzu herritarrek bi ereduren artean aukeratu beharko dutela: EAJren eta EH Bilduren artean. Zerk bereizten zaituzte gehien?

Kultura politiko desberdinak ditugu, eta, beraz, planteatzen ditugun gizarte ereduak ere desberdinak dira. Ekonomian, EH Bilduk interbentzioa du helburu; guk, lankidetzaz publiko-privatua. Haiek zaintza publikatzearen alde egiten dute; guretzat, lan ekimen soziala eta komunitarioa dira oinarriak. Etxebizitzan, EH Bilduk alokairura behartzen zaitu; guk, aldiz, askatasuna eman nahi diogu bakoitzari erabaki dezan alokairua nahi duen edo jabetza. Eta Polizia dela eta, EH Bilduk desmilitarizazioaz hitz egiten du; guk diogu Ertzaintzak baliabide batzuk behar dituela herritarrek babesteko.

Hauteskunde programei begiratu gero, ordea, adostasunak lehenartean daude. Elkargunerik egon daiteke?

Aukerak badaude herri akordioak gauzatzeko, nola ez. Horretarako inportantea da nor bere eredu eta neurriak mahai gainean jarzea.

Lehen arreta jasotzeko gehienez 48 ordu itxarotea eta itxaron zerrrendak 50 egunera hurbiltzea proposatu duzu. Nola egingo duzue hori medikuak falta badira?

Batetik, medikuak erakarri behar ditugu lehen arretara. Eta horretarako pizgarriak eskaini. Baina horrek esan nahi du beste batzuekin lehian sartzea, zeren merkatua mugatua da. Bestetik, badaude profesionalak erretiroa hartzearen direnak. Horiei aukera eman behar diegu lanean jarraitzeko; denbora irabazi behar dugu. Horrez gain, uste dut aukerak badaudela barruko antolaketak beste modu batera egiteko. Horrek guztiak aukera emango digu jarritako helburua betetzeko.

«Osasun administrarien figura»

«Herritarren konfiantza berreskuratu dugu; sinetsita nago»

IMANOL PRADALES

EAJren lehendakari-gaia

Bozen osteko jokalekuak ez du arduratzen. Igandean jarrita dauka arreta, iritzi baitio gizarte eredu dagoela «jokoan». Baikorra da, halere; ziur da gai izango dela hartutako konpromisoak betetzeko.

sortzea proposatu duzue. Zertan lagunduko du?

Medikuek, arta emateaz gain, zama burokratiko dezentekoa dute orain, eta uste dugu figura berri bat beharrezkoa dela hori arintzeko.

Osasun arazoekin medikurengana doan euskaldun baten larruan jarrita, uste duzue ondo artatu dezaketela baldin eta gaitxoak ez badu eskubiderik bere lehen hizkuntzan aritzeko?

Uste dut pauso garrantzitsua eman direla orain arte, baina argi dago ez dagoela bermatuta zerbitzu publiko guztietan. Ari gara. Bateria egin behar ditugu profesional eskasia eta hizkuntza eskubideak, argi dago. Profesionalak sistemara erakarri nahi baditugu, euskalduntze prozesua erraztu behar diegu, eta aukera dagoenean zerbitzua euskaraz ematea bermatu.

Hizkuntza politika zorrotz behar da, legea egokitu behar da, EAJ prest dago horretarako?

Ez daukat garbi lege berri batek hau guztia saihestuko ote zukeen. Azterketa sakona behar da. Euskararen Legea lege ona da. Eragilean parte hartzearekin lortu da orain arte aurrera egitea. Dena den, euskararen erabilera area-

gotzea da orain erronka nagusia. Horretarako aldia izan behar du.

Etxeen alokairuen prezioa mugatu beharko litzateke, etxebizitza legea aplikatuta?

Bai.

Baina esaten duzue lege horrek urratu egiten dituela Jaurlaritzaren eskumenak. Zertan?

Eskumenak urratzen ditu esaten duenean Madrildik onartu behar dela tentsio handiko eremuak zeintzuk diren. Lege horrek esaten du prezio indizea ere Madrilen erabakiko dela. Eta prezioa nola mugatu eta zenbateraino mugatu ere esaten du. Dena Madrildik erabakitzen da: guk hori irentsi behar dugu? Ba, ez gaude ados.

Baina udalei dagokie prezioa mugatzeko eskatzea.

Bai, baina erabakia Madrilen dago. Zuk eskatzen duzu, eta erabakia Madrilen da. Edonola ere, guk ezetz esan genuen ez dituelako errespetatzen gure eskumenak, baina urtebete beranduago ikusten ari gara emaitzei begira ere desastre hutsa dela, lortu nahi zuena lortu beharrean kontrako eragin du eta: alokairua garestitu egin da, eta eskaintza gutxitu.

Etxebizitza turistikoak mugatu egin behar dira?

Begira, etxebizitza legearen

ondorioz alokairurako etxeak merkatutik desagertu dira, eta aldi baterako etxe turistiko gisa eskaintzen dira orain. Hala ere, etxebizitza turistikoak arautu behar dira, noski.

Zaintza lanak duindu egin behar direla esan zenuen, eta hori hirugarren sektorearekin egin behar dela, alegia, enprekin batera. Zein oinarri jar litezke erakunde publikoetatik zaintzaren lan baldintza horiek onak izateko eta enpresek ere irabazteko?

Duintasuna ez du ekarriko publiko bilakatzeak. Langileen lan baldintzak eta baldintza ekonomikoak zaindu, hori egin behar da. Oztopo nagusia Atzeritarren Espainiako Legea da. Zeren asko dira lanean kontraturik gabe ari direnak, eta hortik etortzen dira gero arazo guztiak. Beraz, legea aldatzea oinarritzkoa da; guk egin ditugu saiakerak. Hemen, administrazioek azpikontratatu dituzten zerbitzu guztietan sartuta daude gizarte klausulak deitzen direnak, lan baldintza batzuk bermatzeko eta abar.

Gizarte laguntzak. «Laguntzak bai, baina kontrola ere bai», esan zenuen, eta agentzia bat sortzea proposatu horiek ku-



Motzean

Badakizu nola duen izena zure familia medikuak? Bai, Patricia.

Zein duzu etxeko hizkuntza? Eta lanekoa? Alabarekin, euskaraz; emaztearekin, erdaraz. Lanean, euskaraz eta erdaraz.

Inoiz lapurretarik egin dizute? Ez. Emazteari bai.

Beldurrik izan duzu inoiz gauez etxerako bidean? Ez. Gutxi ibiltzen naiz gauez ja.

Zaintza lanik egitea egokitu zaizu? Bai, amarekin, gaixorik egon zenean.

Etxea zurea duzu, edo alokatua? Nire... Gurea, hobeto esanda.

Zer auto duzu? Audi bat, 2011koa, diesela. Zaharkituta geratzen ari da.

Terrazetan erretzea debekatu behar da? Ez dut uste.

Gutxieneko soldata gehigarria jarri behar du Jaurlaritzak? Ondo pentsatu beharko nuke.

Internetez erosten duzu? Zer erosi duzu azkena? Gutxi. Tramankulu elektronikoak erosi izan ditut.

Sakelakoak debekatu behar dira eskoletan? Arautu beharra dago; ikastetxe bakoitzak erabaki dezala noiz bai eta noiz ez.

Zinema ala plataformak? Orain plataformak.



OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

deatzeko eta kontrolatzeko. Iruzurra handia dela uste duzu?

Helburua da kudeaketa eta koordinazioa hobetzea, bikoizketak saihestea eta azkarragoak izatea. Uste dut hori dela bitartekoen kudeaketa efiziente batean pentsatzea. Iruzurra badagoela? Bai, batzuetan agertzen da komunikabideetan. Gehiengoa da? Ez. Baina garrantzitsua da laguntzak behar dituenari ematea.

Udaltzainek armatuta joan beharko dute aurrerantzean. Seguruago sentiarazten zaitu horrek?

Polizia ikusten baldin badut inguruan, lasaiago ibiliko naiz beti. Ertzaintzan hautsak harrotuta daude. Zein da konponbidea, zure ustez? Elkarrizketa. Lan baldintzez hitz egiten ari gara kasu honetan, lan itunaz. Beraz, sindikatuarekin egotea eta haiei entzutea dagokigu, eta proposamenak aurkeztea.

«Berrindustrializazioaz» jarduten duzu programan. Horren beharra sumatzen duzu?

Bai, eta aukera. Biak. Euskadi herri industrialia da, eta orain sektoreak duen pisua Europako batezbestekoaren pare dago. Baina trantsizio energetikoak edo digitalak aukera berriak ekarriko ditu. Ardanzaren garaietan planteatzen industriaren eraldaketa,

eta asmatu egin genuen. Baina, orain, uste dut momentua dela pentsatzeko trantsizio horietara guztietara nola egokitu. Nik aukera pila bat ikusten dut.

Enpresak errotzeko funts bat sortzea ere proposatu duzu; EH Bilduk ere jaso du programan. Zer enpresatan edo sektoretan egon beharko luke Jaurlaritzak?

Estrategikoak diren guztietan parte hartu behar du. Automozioan, esaterako, txapeldunak ditugu, mundu osoan dabilzanak, eta horietan ez gaude. Garrantzitsua da horietan egotea. Inportantea da ez bakarrik enpresak bertan mantentzeko, baizik eta hazten laguntzeko. Zeren badauzkagu enpresa batzuk, ezkutuko txapeldunak deitzen direnak, nitxoak, oso lehiakorak; gipuzkoarrak dira asko. Horiei tresnak eman behar zaizkie tamaina irabazteko.

Zuk esana da: «Harrobiari ondo ordaindu behar zaio». Zer iritzidiotte horri enpresari?

Oraindik ez didate ezer esan, baina enpresek jabetu behar dute orain gazteak ez direla lehen bezalakoak. Enpresek jakin behar dute zer baldintza eskaini behar dituzten gazte horiek erakarri nahi baldin badituzte. Soldata on bat, dudarik gabe. Baina ez hori



«Argi daukat [EAJ-PSE itunari buruzko] erabakia Sanchezek hartuko duela. Bere interesen arabera hautatuko du»

«Aukerak badaude herri akordioak gauzatzeko, nola ez. Lehenik, nork bere eredia jarri behar du mahai gainean»

bakarrik: malgutasuna, kontziliaziorako aukera, karrera profesionala egiteko aukera... Enpresak ere egokitu behar dira.

AHTaren lanak amaitzea «lehentasuntzat» daukazu. Nondik egin behar da Nafarroako lotunea, zure ustez?

Teknikariak esaten duten tokitik. Ministerioa ari da azterketa teknikoa egiten; ez dakit noiz eman behar dituen horren emaitzak. Nik ez daukat iritzirik.

Mesfidantza agertu duzu PSEri dagokionez. Sanchezek hitza eman dizue, ordea.

Sanchezek ez du ezer esan.

Bai, esan zuen. Eta argudiatu zuen itunak egonkortasuna eman duela.

Nik ez diot entzun oraindik. Dena den, argi daukat erabakia Sanchezek hartuko duela. Hauteskundeen emaitza zein den ikusi beharko da, hemen eta Katalunian. Gureak 21ean dira; Kataluniakoak, berriz, maiatzaren 12an. Sanchezek soilik bere interesei begira hartuko du erabakia. Gehiengorik lortuko ez bazenute, gutxiengoan gobernatuko zenuke?

Urkulluren lehen agintaldia bakarrik eta gutxiengoan izan zen. Bigarren legegaldian alderdi sozialistarekin egon zen gobernuan, baina gutxiengoan. Gehiengo absolutua hirugarrenengoan eduki du bakarrik. Beraz...

Beraz, ez duzu PP ekuazioan ikusten.

Nik oraindik ikusten dudana gauza bakarra da emaitza inork ez dakiela. Euskal gizarteak zer esan duen ikustean hitz egingo dugu gobernarritasunaz. Baina uste dut herritarren konfiantza berreskuratuko dugula; sinetsita nago. Legebiltzarraren gehiengo handi bat abertzalea izango da hurrengo legegaldian. Zertarako balioko du horrek, zure ustez?

Aukera ona da EH Bildu eta beste alderdi politiko batzuk auto-

gobnuaren adostasun berrian sartzeko. 1979an ezker abertzaleak egindako hanka sartzeko konponduko litzateke horrela. Ea gai garen orain denon artean adostasun zabala lortzeko.

Autogobernu handiagoa nahi duzu, eta nazio aitortza, estatutu berri batean. EAJk eperik badu buruan?

Joan den azaroan alderdi sozialistarekin sinatu genuena da urte eta erdi gurea Gernikako Estatutuaren karpeta ixteko, eta hortik aurrera beste bat zabalduko genuela autogobernu berriaren inguruan. Hori daukat buruan.

Marisol Garmendiak esan zuen zaila izango dela Gizarte Segurantzza legealdi honetan eskualdatzea.

Ez nekien ministroa zenik. Espainiako Gobernuaren ize-
nean hitz egiten du hemen...

Bruselan ere ahotsa izan nahi duzue. Nola?

Lehen urratsa Ecofinen [Europako Batasuneko Ekonomia eta Finantza Ministroen Kontseiluan] egotea izan beharko litzateke. Erraza izan daiteke, baldin eta borondate politikoa badago. Behin ate bat zabaldua, beste batzuk zabaltzeko aukera izango dugu. ●